



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIRIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Jainkoak uztartu duena, ez beza gizakiak aska”

2021eko urriaren 3a
Urteko 27. igandea (B)

Markos 10, 2-16.

Fariseu batzuek hurbildu eta, zertan harrapatuko, gizonak bere emaztea uztea zilegi ote zuen galdetu zioten. Hark erantzun zien: -Zer agindu zizuen horretaz Moisesek?

Eta haiek: -Moisesek, *dibortzio-agiria idatzi eta emaztea uzteko* baimena eman zigun.

Jesusek esan zien: -Jainkoaren gauzetan itsu zaretelako eman zizuen lege hori Moisesek. Baina, munduaren hasieratik, *Jainkoak gizaseme eta emakume egin zituen; horregatik, gizasemeak bere aitamak utziko ditu eta emazteari elkartuko zaio, eta biak bat izango dira*. Beraz, aurrerantzean ez dira bi, bat baino. Horrela bada, Jainkoak uztartu duena, ez beza gizakiak aska.

Gero, etxean, arazo berari buruz galdegin zioten ikasleek. Jesusek esan zien: -Bere emaztea utzi eta beste bat hartzen duenak adulterio egiten du lehenengoaren aurka; eta bere senarra utzi eta beste bat hartzen duen emakumeak adulterio egiten du era berean.

Beste batean, haurrak eraman zizkioten Jesusi, uki zitzaizkien; ikasleek, berriz, haserre egiten zieten. Hori ikustean, Jesus haserretu egin zen, eta esan: “Utzi haurrei niregana etortzen, ez galarazi, horrelakoek baitute Jainkoa errege. Benetan diotsuet: Jainkoaren erreinua haur batek bezala onartzen ez duena ez da inola ere bertan sartuko”.

Eta haurtxoak magalean hartu eta bedeinkatu egiten zituen, eskuak ezarriz.

“Hori ikustean, Jesus haserretu egin zen, eta esan: “Utzi haurrei niregana etortzen, ez galarazi, horrelakoek baitute Jainkoa errege. Benetan diotsuet: Jainkoaren erreinua haur batek bezala onartzen ez duena ez da inola ere bertan sartuko.”

TXIKIAK ONARTU

Jose Antonio Pagola

Pasadizo honek gauza ezdeusa ematen du. Halere, inportantzia handiko hondoa du Jesusen jarraitzaileentzat. Markosen kontakizunaren arabera, zenbait jendeek Jesusengana eraman nahi dituzte han inguruan jolasean ari diren haur batzuk. Jende horrek nahi duen gauza bakarra Jesusek uki ditzan da, bere indarrez eta bere biziaren apur bat kutsa ditzan. Itxuraz, uste herrikoia zen hori.

Ikasleei gogaikarri gertatu zaie hori, eta saihestu egin nahi dituzte haurrak. Hesia eratu nahi dute Jesusen inguruan. Beren buruari egotzi nahi diote Jesusengana zein iritsi eta zein ez erabakitzeko ahala. Jesusen eta txikiaren, ahulenen eta gizartean premiarik handiena dutenen artean jarri dira berak. Jesusengan iristea erraztu ordez, zaildu egin dute.

Ahaztu egin dira jada Jesusen keinuaz, egun batzuk lehenago taldearen erdian Jesusek haur bat jarri izanaz, ikas dezaten ezen txikiaren izan behar dutela ikasleen arduraren eta arretaren erdigune. Ahaztu egin dira guztien aurrean haurra besarkatu duela, gonbidatu dituelarik bere izenean eta bere txera beraz halakoak onar ditzaten.

Hori ikusirik, haserretu egin da Jesus. Ikasleen portaera hori jasanezina du. Eta, haserre, bi agindu hauek eman dizkie: «*Utzi haurrei niregana hurbiltzen. Ez eragotzi*». Zeinek irakatsi die, ordea, Jesusen Espirituaren hain kontrakoa den era horretan jokatzeko? Hain juxtu, txikiak, makalak eta babesgabeak dira Jesusengana hurbiltzeko aukera izan behar duten lehenengoak.

Oso sakona da arrazoia; Aitaren asmoari dagokiona izaki: «*Horiek bezalako direnena da Jainkoaren Erreinua*». Jainkoaren erreinuan eta Jesusen taldean, txikiak ez, baizik handiak eta boteretsuak dira gogaikarri, hau da, dominatu eta lehenengo izan nahi dutenak.

Elkartaren erdigunea ez du bete behar jende indartsu eta boteretsuak, gainerakoei goitik behera begiratzen dienak. Aitzitik, Jesusen elkartean honelako jendea behar da: azken postuaren bila dabilena ahulena eta premia handienekoak onartzeko, zerbitzatzeko, besarkatzeko eta bedeinkatzeko.

Hain zuzen, Jainkoaren erreinua ezin zabaltu da handien gogo-ekarpenaz, baizik txikiak onartuz eta defendatuz. Azken hauek arduraren eta arretaren erdigune direnean, hori ari da garatzen Jainkoaren erreinua, Aitak gogoko duen gizartea, alegia.